



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko otsailaren 6a

17. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina aldatzen duena, desgaitasuna dutenek enplegu publikoa eskuratzeari dagokionez (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatu eta haien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dituen (5. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duena. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak aurkeztu dute (8. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean uhin elektromagnetiko ez-gidatuen bidezko telekomunikazioko oinarritzko estazioak antolatzeke maiztazaren 6ko 10/2002 Foru Legea aldatzen duena. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Zuzenketa mantentzea (14. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aiegin haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko bat eraiki dezan. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak aurkeztu dute (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu urgentziatzekoa dela baliorik gabe uztea frankismoarekin lotutako pertsonak gorensten dituzten errekonozimenduak. Eledunen Batzarrak onetsia (16. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko ea Nafarroak zergatik ez duen parte hartzen Europak enpresa txiki eta ertainentzat presatatu duen Europako kreditu-planean. Samuel Caro Sádaba jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Reina Sofia ospitaleko mamografiak Nafarroako Unibertsitateko Klinikara desbideratzeari buruzkoa. Samuel Caro Sádaba jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, “Enpresa txiki eta ertainak ekimena” izeneko enpresa-finantzaketako proiektuan Nafarroako Foru Komunitateak parte ez hartzeari buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (18. or.).
- Galdera, Iruñeko (Beloso) eta Zolinako behaketa- eta harrera-zentroyen kudeaketari eta funtzionamenduari buruzkoa. Patxi Leuza García jaunak egin du (19. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Erabakia, foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzano andrearen heriotza dela eta (20. or.).
- Foru parlamentari Patricia Cueva Lázaro andrea Socialistas de Navarra parlamentu-taldean sartzea (20. or.).
- 2014ko abenduaren 31n Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan lanean ari diren funtzionarioen zerrenda (21. or.).
- Nafarroako Kontuen Ganberako 2015. urterako plantilla organikoa eta erakunde horrek 2014ko abenduaren 31n dituen funtzionarioen zerrenda (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina aldatzen duena, desgaitasuna dutenek enplegu publikoa eskuratzeari dagokionez.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2015eko urtarrilaren 28an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Parlamentuari igorri dio foru lege proiektu bat, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina aldatzen duena, desgaitasuna dutenek enplegu publikoa eskuratzeari dagokionez.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea foru lege proiektua, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina aldatzen duena, desgaitasuna dutenek enplegu publikoa eskuratzeari dagokionez.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2015eko martxoaren 2an, eguerdiko hamabietan, bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote foru lege proiektuari.

Iruñean, 2015eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina aldatzen duena, desgaitasuna dutenek enplegu publikoa eskuratzeari dagokionez.

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren zazpi-garren xedapen gehigarriak neurri batzuk arautzen ditu desgaitasuna dutenei erraztasunak emateko enplegu publikoa eskuratzeko, bai langile finkoentzako deialdietan bai aldi baterako kontratazio zerrendetan. Azken urteotan neurri horien aplikazioan bildu den esperientzia ikusita, komeni da aldaketa batzuk egitea neurri horietan, benetan erantzun diezaioten bilatzen den xedeari.

Funtzio publikoan sartzeko deialdiei dagokionez, hiru aldaketa egin dira desgaitasuna dutenentzako egungo erregulazioa hobetzeko: batetik, enplegu publikoaren eskaintzetan erreserbatutako lanpostuen kopurua igo egiten da, % 5etik % 7ra, Administrazio Publiko gehien araudietan aurreikusitakoarekin bat; bestetik, erreserbatutako lanpostuetatik hautapen prozesuan betetzen ez diren guztiak gorde, eta hurrengo lan eskaintzan sartuko dira. Azkenik, enplegu lagunduaren arloko neurriak aurreikusten dira, desgaitasuna dutenak eskuratu-tako lanpostura egokitzen laguntzeko beharrezkoa den kasuan.

Aldi baterako kontrataziorako zerrendei dagokionez, desgaitasunak dituztenek egun duten lehenetasuna aldatzen da, eta, aurrerantzean, eskaintako hiru lanpostuko bat, lehenbizikoa, haientzat erreserbatuko da. Aldaketa honen xedea

da, hain zuzen ere, desgaitasuna dutenak eskaintako lanpostuetara egokitzeko aukerak hobetzea, eta, horrekin batera, gainerako zerrendetatik heldu diren izangaiak kontratatzeke aukerak ere aurreikusten dira.

Artikulu bakarra. Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzea.

Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bateginaren zaspigarraren xedapen gehigarria aldatzen da. Aurrerantzean testu hau izanen du:

“1. Nafarroako Administrazio Publikoetako lan publikoaren eskaintzetan lanpostu hutsen %7 gutxienez gorde egingen da % 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutenentzat, betiere hautapen probak gainditzeko eta, dagokion unean, aipatutako desgaitasun gradua eta bete beharreko lanarekin eta eginkizunekin bateragarria dela frogatzen badute. Hala egingen da, helburua izanik lortzea, denboraren poderioz, desgaitasuna duten langileen kopurua Administrazio Publiko bakoitzeko langile guztien % 2koa izatea.

Hautapen prozesuak egin ondotik, desgaitasuna dutenek bete gabe gelditzen diren lanpostu erreserbatuak hurrengo lan eskaintzako kupoari gehituko zaizkio, baina gehienez ere % 10 izanen dira.

2. Hautapen probetan, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutenentzat beharrezkoak eta zentzuzkoak diren egokitzapenak eta denbora eta baliabide doikuntzak egingen dira, hala eskatuz gero, desgaitasuna dutenek baldintza berdinetan parte har dezaten ziurtatzeko, ariketaren mamia aldatu gabe, betiere.

3. Aurreko idatz-zatietan ezarritako desgaitasun gradua izan eta, edozein txandatan, administrazioan sartzeko deialdi bateko lanpostua lortzen duten pertsonak, lanpostu hutsak aukeratzeko orduan, gainerako izangaien aurretik egonen dira. Era berean, enplegu lagunduaren arloko neurriak aurreikusten dira, desgaitasuna dutenak eskuratu-

tako lanpostura egokitzen laguntzeko beharrezkoa den kasuan.

Aurrerago, kasuan kasuko administrazio publiko lanpostuak betetzeko deialdietan parte hartzeko, desgaitasuna bateragarria izan beharko da bete nahi dituzten lanpostuetako lan eta eginkizunekin.

4. Aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrendetan, hiru lanpostuko bat, lehenbizikoa, zerrenda horretan dauden eta % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten izangaientzat erreserbatuko da, betiere hautapen probak gainditzeko badiutze eta frogatzen badute desgaitasun hori bateragarria dela bete beharreko lanarekin eta eginkizunekin.

5. Desgaitasuna dutenentzako txandan 1. idatz-zatiaren arabera ezarritako lanpostu kopurutik % 25 erreserbatu ahal izanen da, gehienez ere, adimen gaitasuna mugakoa duten edo atzerapen mental arina edo moderatua dutenentzat, betiere % 33ko desgaitasuna edo handiagoa frogatzen badute. Erreserba berezi hori ezartzeko, nahitaezkoa izanen da horrelako desgaitasuna duten pertsonen berezitasunetarako egokiak diren lanpostu hutsak egotea enplegu publikoaren eskaintzan.

Idatz-zati honetan aipatzen diren lanpostuak betetzeko eta sartzeko prozedurak deialdi berezien bitartez egingen dira, eta txanda ezberdinak ezarriko dira, mugako adimen-gaitasuna duten pertsonentzako batetik, eta atzerapen mental arin edo moderatua frogatzen duten pertsonentzat bestetik. Izangaiei ez zaie kasuan kasuko titulaziorik eskatuko, non eta lanpostuaren eginkizunak direla-eta derrigorrezkoa ez den berariazko titulazioa izatea. Proben helburua funtsean izanen da egiaztatzea izangaiek ba ote dituzten lanpostuari dagozkion eginkizunetan aritzeko behar diren jokabide-sail oinarritzakoak eta ezinbesteko ezagutzak.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatu eta haien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dituen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2015eko urtarrilaren 27an egindako bileran, erabaki zuen baliozkatea 2/2014 Foru Lege Dekretua, abenduaren 29koa, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatu eta haien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dituen, eta foru lege-dekretu hori foru lege proiektu gisa izapidetzea. Foru lege-dekretua 2015eko urtarrilaren 16ko 6. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. eta 161. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Ele-dunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Presako prozedurari jarraikiz izapidetzea foru lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatu eta haien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dituen.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **zortzi egun balioduneko epea hasiko da, eta 2015eko otsailaren 19an, eguerdiko hamabietan, bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 161 artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalgo dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2015eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatu eta haien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratzen dituen

ZIOEN AZALPENA

Ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen bidez, Nafarroako Parlamentuak presako zenbait neurri onetsi zituen Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan. Aipatu neurriak, funtsean, ekonomiaren eta aurrekontuen egungo egoeran oinarriturik hartu ziren, eta horietako gehien indarraldiari dagokionez, erabaki zen 2012. urtera mugatu zela, eta gerora erabakiko zela hurrengo urteetan luzatuko zen ala ez.

Abenduaren 26ko 25/2012 Foru Legearen bidez, Nafarroako Parlamentuak 2013. urtera luzatu zituen ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen aurreikusitako zenbait neurri. Modu berean, abenduaren 30eko 1/2013 Foru Lege Dekretuaren bidez, neurri berak 2014. urtera luzatu ziren. Neurri horien indarraldia 2014ra luzatzea eragin zuten inguruabarrak aldatu ez direnez, beharrezkoa da 2015. urtera ere luzatzea, eta horretarako, beharrezkoa da lege-mailako arau bat garatzea.

Alde horretatik, foru lege-dekretu honen bidez luzatu egiten da 2013an eta 2014an indarrean egon diren neurri beren indarraldia, hots, Parlamentuaren gehiengoaren borondateari jarraikiz onetsitako abenduaren 26ko 25/2012 Foru Legearen ezarritakoa. Hona, neurri horiek:

– Langileek zerbitzu aktiboan segitzeko luzapena etetea.

– Zerbitzuagatik dietak kentzea.

– Osasun Laguntzaren Zerbitzuko “Erabilera berezia” delako modalitateko tarifak erabiltzeko mugak.

– Nafarroako Gobernuak kideei eta gainerako goi karguei dagozkien neurriak.

Bestalde, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko

10/2003 Foru Legearen 25.2 artikulua ezartzen du pentsioen zenbatekoa urtero eguneratuko dela, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege bakoitzak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako ezartzen duen ehunekoaren arabera. Alde horretatik, aintzat hartu beharra dago ez dagoela Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legerik 2015erako, izan ere, Nafarroako Parlamentuak, 2014ko azaroaren 25ean egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez, atzera bota du eguneraketa hori jasotzen zuen Nafarroako Gobernuaren proiektua.

Hori horrela izanik, bidezkoa da lege mailako arau bat onestea, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako klase pasiboen pentsioen 2015erako eguneraketa jasotzeko. Aurreko urteetan bezala, erreferentziazat hartuko da pentsio publikoek urte horretan jasaten duten igoera, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak horretarako xedatzen duenarekin bat.

Foru lege-dekretu honetan jasotako eguneraketaren arabera, zenbait inguruabarrek tratamendu berezia behar dute, esate baterako, alargun- eta umezurtz-pentsio minimoek; izan ere, indarreko araudiak lanbide arteko gutxieneko soldaterekin lotzen ditu. Era berean, eta pentsio publikoen arloko araudi indarduna aplikatzeko, zehaztu da pentsioak ez direla eguneratuko baldin eta pentsio horiek berek bakarrik edo onuradun berak jasotzen dituen beste pentsio publiko batzuekin batera pentsio publikoetarako oro har urtean ezarritako gehieneko zenbatekoa gainditzen badute.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikulua haxe ezartzen du 1. zenbakian:

“1. Kasu berezi eta oso presakoetan, Nafarroako Gobernuak behin-behineko legezko xedapenak eman ahal izanen ditu, foru lege-dekretuaren forma hartuko dutenak. Ezin izanen dira foru lege-dekretuaren xede izan honakoak: Foru Komunitateko erakundeen eta nafarren eskubideen, betebeharren eta askatasunen garapen zuzena, lege organiko honetan arautuak daudenena; lege organiko honen erreforma, eta lege hau garatzeko emandako foru legeena, legean bertan espresuki aipatzen direnena, hain zuzen; hauteskunde-arau bidea; eta Nafarroako Aurrekontu Orokorrak.”

Gorago deskribatutako aparteko eta premiazko inguruabarrak direla-eta –bereziki 2015eko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legerik ez izatea–, beharrezkoa da foru lege-dekretu bat onestea, izan ere aipatu lege organikoak ezartzen

duen bezala, langileen arloko presako neurriek eta pentsioen eguneraketak kasuan kasuko urtearen urtarrilaren 1ean hartu behar dute indarra.

Horregatik guztiagatik, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21 bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2014ko abenduaren 29an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorriz,

DEKRETATU DUT:

1. artikulua. Nafarroako administrazio publiko- en zerbitzuko langileen arloko presako neurriak.

2015. urtera luzatzen dira Nafarroako administrazio publiko- en zerbitzuko langileen arloko presako neurriak, hots, ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 1., 5., 6. eta 8. artikuluetan aurreikusitakoak.

2. artikulua. Nafarroako administrazio publiko- en montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioak eguneratzea.

1. 2015eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako administrazio publiko- en montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioek, indarreko araudiaren arabera eguneratzeko esku bidea dutenek, pentsio publikoek urte horretan duten igoera bera izanen dute.

2. Aurreko atalean xedatutakoa galarazi gabe, alargun- eta umezurtz-pentsio minimoek lanbide arteko gutxieneko soldatari jarraituko diote, indarra duen araudian ezarritakoaren arabera.

3. Pentsio publiko- en arloko indarreko araudia aplikatzeko, eguneraketa ez da aplikatuko baldin eta aitortutako edo etorkizunean aitortuko diren pentsioek, berek bakarrik nahiz onuradun berak jasotzen dituen beste pentsio publiko batzuekin batera pentsio publikoetarako urtean ezarritako gehieneko zenbatekoa gainditzen badute.

Azken xedapenetako lehena. Nafarroako Parla- mentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parla- mentura igorriko da baliozkotu dezan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikulua- ren 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra har- tzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Aldizkari Ofi- zialean argitaratuko da eta 2015eko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak aurkeztu dute foru lege proposamen bat, Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duena, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta hari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2015eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Gizarteratze-errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Administrazio publikoen betebeharrak saihestezina da herritar guztien oinarriko bizi-beharrizanei erantzutea. Gutxieneko betebeharrak hori exijitu beharrekoa zaio, berezkoa baitu, edozein gizarteri, baldin eta bere burua ongizatearen estatuaren defendatzailetzat hartzen badu, eta nahitaezko abiapuntua da berme batekin garatze aldera gizarteratze-prozesuak, gizarteratze-tresna lehenetsi gisa.

Administrazio publikoei exijitu beharreko gutxieneko hori oinarritzen da, besteak beste, Giza Eskubideen Adierazpenean, zeina 25. artikuluko puntuetan garatua baitago, honako hauek jasoz:

1 Prestaziorako eskubidea.

2 Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongizatea bermatuko diona, eta batez ere janaria, jantziak, etxebizitza, mediku-sorospena eta premiazko gizarte-zerbitzuak; eta baita aseguru izateko eskubidea ere, langabezia, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzaroa edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako.

3 Amek eta haurrek laguntza bereziak jasotzeko eskubidea dute. Haur guztiek, senar-emazteengandik nahiz ezkontzatik kanpo jaiotakoek, gizartearen babes berbera izateko eskubidea dute.

Herritarren oinarriko beharrianak asetzeko berme horiek ondasunak eta zerbitzuak zuzenean hornituz ziurtatu behar dira, oinarriko beharrianak ordaintzeko prestazio ekonomikoen bidez edo lanpostu bat baldintza duinetan lortzeko gaitasunaren bidez.

Familia-unitateek behar dituzten gutxieneko diru-sarrerak edukitzeko bermea eman behar da aldizkako prestazio ekonomiko baten bidez, zeina bermaturik egonen baita, bizitza duin bat ahalbidetuko baitu eta Nafarroan bizi diren pertsona guztien bizi-beharrizanak aseko baititu.

Artikulu bakarra. Gizarteratze-errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzea.

Bat. Foru legearen izenburuak testu hau izanen du:

1/2012 Foru Legea, urtarrilaren 23koa, oinarrizko errenta baldintzatua arautzen duena

Foru lege horren honako agindu hauek honela idatzita geldituko dira:

Bi. 1. artikulua honela idatzita geldituko da:

“1. artikulua. Prestazioaren helburua eta definizioa.

1 Foru lege honen xedea da arautzea “oinarrizko errenta baldintzatua” izeneko aldizkako prestazio ekonomiko bat jasotzeko eskubidea, foru lege honetako 3. artikuluan prestaziorako eskubideari dagokionez ezarritako baldintzak betetzen dituzten familia unitateentzat.

2 Prestazio ekonomiko ziurtatua da, aldizka jasoko dena, iraupen zehatzekoa, osagarria eta indarreko legedian aurreikusitako beste edozein baliabide eta gizarte-prestazio ekonomikoren subsidiarioa. Baliabide eta prestazio horiek oinarrizko errenta eskatu aurretik erabili beharko dira osorik. Prestazioaren xedea da bere onuradunen oinarrizko beharrizanak asetzen direla bermatzea.

3 Gizarteratze-errenta besterenezina izanen da eta, horrenbestez, ezin izanen da:

- a) Betebeharren berme gisa eskaini.
- b) Erabat edo partzialki laga.
- c) Konpentsatu edo deskontatu, bidegabeki jasotako prestazioak itzultzeko ez bada.
- d) Atxiki edo bahitu, salbu aplikagarri den Estatuko legeria orokorrean ezarritako kasuetan eta aurreikusitako mugekin.

4 Prestazio bermatu hau foru lege honetan eta bere aplikazio eta garapenerako xedapenetan ezarritako irispen eta baldintzekin onartuko da, eta indarreko lege antolamenduetarekin bat.”

Hiru. 2. artikulua kentzen da.

Lau. 3. artikulua honela idatzita geldituko da:

“3. artikulua. Prestaziorako eskubidea.

1 Prestazio ekonomiko honetarako eskubidea izanen dute Nafarroan bizi diren familia unitateek, zein ere den beren administrazio egoera, baldin eta beren diru-sarreraren zenbatekoa txikiagoa bada oinarrizko errenta baldintzatuarekin legokiekeena baino. Nafarroan bizitzearen baldintza ez da hamabi hilabete baino gehiagokoa izanen.

2 Prestazioa jasotzen duen pertsona 18 urtetik goitikoa izanen da, edo adingabe emantzipatua. 1

3 Salbuespenez, prestazio hau jasotzeko eskubidea izanen dute baldintza hauek betetzen ez dituzten familia unitateek ere, baldin eta beren erreferentziazko profesionalak uste badu bidezkoa dela, beren oinarrizko beharrizanak asetzea bermatzeko.”

Bost. 3. artikulua kentzen da. Prestazioa jasotzeko baldintzak.

Sei. 4. artikulua honela idatzita geldituko da:

“4. artikulua. Prestazioaren zenbatekoa.

1 Lanbide arteko gutxieneko soldataren arabekoa izanen da oinarrizko errenta baldintzatuaren zenbatekoa, eta halakotzat joko da unitate errentahartzailearen baliabide ekonomikoak ondoko kopuruen baturara iritsi arte osatzeko behar den kopurua:

- Pertsona 1: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100. •
- 2 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 120.
- 3 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 130.
- 4 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 140.
- 5 pertsona edo gehiago: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 150.

2 Jaso beharreko zenbatekoa ez da inoiz ere lanbide arteko gutxieneko soldataren % 10 baino gutxiago izanen. Zenbateko horretara ekarriko dira oinarrizko errenta baldintzatuak, zeinen zenbatekoa, kasuko kalkuluak eginda, horren azpitik gelditzen baita.”

Zazpi. Honela idatzita agertuko da 5. artikulua:

“5. artikulua. Prestazioaren iraupena

1 Prestazioaren iraupena 12 hilabetera bitartekoa izanen da, oinarrizko gizarte zerbitzuen proposamenarekin bat, eta berri egin ahal izanen da harik eta familia unitatearen diru-sarrerak oinarrizko errenta baldintzatuarengatik legozkiokeenak izan arte.”

Zortzi. Honela idatzita agertuko da 6. artikulua:

“6. artikulua. Onuradunen eskubide eta betebeharrak.

1. Errenta jasotzen duten pertsonen eskubideak.

1.1 Prestazio honen onuradunek eskubidea dute gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide personalizatu bat ezartzeko, oinarritzko gizarte zerbitzuen eta gizarteratze eta laneratzeko lantaldeen artean adostua. Administrazio eskudunak hura egiazki betetzen dela ziurtatu beharko du, horretarako behar diren baliabide teknikoak jarritz. Oinarritzko errenta baldintzatua bera ere ibilbidean aurrera egiteko baliabide gisa hartu behar da.

1.2 Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legean jasotako eskubideak, eta Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa onesten duen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuan oinarritzko errentari dagokion ezarritako bermeak betetzekoak.

2. Prestazioa jasotzen duten pertsonen betebeharrak:

2.1. Oinarritzko errenta zertarako eman zaien, hartarako erabilteza.

2.2. Nafarroan modu efektibo eta jarraituan bizitzea prestazioa jasotzen den epe guztian; oinarritzko errenta hartzen duen familia-unitateko pertsona bat edo pertsona batzuk foru erkidegotik atera daitezke urtebetean hilabete baino luzeago ez den aldi batez, betiere hori aurrez jakinarazita kasuko oinarritzko gizarte zerbitzuari. Era berean, Nafarroan bizitzearen baldintza ez dela eten joko da irteera Europako Esparru Ekonomikoko herrialdeetara edo Suitzara egiten denean, lana bilatzeko edo lan egiteko, lanbidean trebatzeko edo nazioarteko lankidetzarako; betiere, egonaldiak 90 eguneko baino laburragoa izan beharko du.

2.3. Eskatzea, oinarritzko errenta jasotzen ari diren denbora guztian, familia-unitateko edozeinen eskubidekoa den prestazio ekonomiko oro.

2.4. Egiazko datuak ematea egoera pertsonal eta familiarrari buruz eta haietan gertatzen den edozein aldaketa jakinaraztea 20 eguneko epean”

Bederatzi. Kendu egiten dira 7. artikulua eta 8. artikuluko c) eta d) letrak.

Hamar. 14. artikulua honela idatzita geldituko da:

“14. artikulua. Zehapenak.

1. Arau-hauste arinak ohartarazpena eginez zehatuko dira.

2. Arau-hauste larriak 100 eta 300 euro bitarteko isunaz zehatuko dira.

3. Arau-hauste oso larriak 300 eta 1000 euro bitarteko isunaz zehatuko dira.

4. Artikulu honetan aipatzen diren zehapenez gain, bidegabeki jasotako kopuruak itzuli beharko direla ulertzen da.”

Hamaika. Honela idatzita agertuko da 16. artikulua:

“16. artikulua: Oinarritzko errenta baldintzatuari eta gizarte zerbitzuen zorroko prestazio bermatu guztiei buruzko espedienteen izapidetzea prozedura laburtu eta lehentasunezko baten bidez egiten da.

Halatan, espedienteen izapidea eta ebazpena ez da hilabetetik gora luzatuko, eskabidea kasuko organoaren erregistroan sartzen denetik zenbatuta.”

Hamabi. 17. artikulua honela idatzita geldituko da:

“17. artikulua: Prozedurari amaiera ematen dion ebazpena 16. artikuluan ezarritako epean jakinarazten ez den kasuetan, eskabidea administrazio-isiltasun positiboaren bitartez baietsi dela joko da.”

Hamahiru. Lehenengo xedapen gehigarria honela geldituko da:

«Lehenengo xedapen gehigarria. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea eta Nafarroako gizarte zerbitzuen arloko araudia aldatzea.

1. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen 20. artikuluko b) letra aldatu eta honela geldituko da:

“b) Oinarritzko errenta baldintzatuaren prestazioa”

2. Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, Nafarroako gizarte zerbitzuen arloko arauetan oinarritzko errentaren prestazioari buruz dauden aipamen guztiak kenduko dira».

Xedapen iragankor bakarra. Prestazioak eskatzeko aldi baterako araubidea.

Foru lege hau indarrean sartzen denean izapidetzen ari diren gizarteratze-errentaren eskabideak, bai eta orduan berritzen ari direnak edo egiten direnak ere, foru lege honetan ezarritakoaren arabera izapidetuko eta ebatziko dira.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

Indargabetuak dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehena. Erregelamendu bidezko garapena.

Foru lege honek indarra hartu eta lau hilabete-ko epean, Nafarroako Gobernuak foru dekretu bidez onetsiko du oinarritzko errenta baldintzatua garatzeko erregelamendua.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra har- tzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale- an argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean uhin elektro- magnetiko ez-gidatu- en bidezko telekomunikazioko oinarritzko esta- zioak antolatzeko maiatzaren 6ko 10/2002 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe- tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku- luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro parlamentu- taldeak Foru Lege proposamena aurkeztu du, Nafarroako Foru Komunitatean uhin elektromagnetiko ez- gida- tuen bidezko telekomunikazioko oinarritzko esta- zioak antolatzeko maiatzaren 6ko 10/2002 Foru Legea aldatzen duena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Ba- tzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean uhin elektro- magne- tiko ez- gidatu- en bidezko telekomunikazioko oina- rritzko estazioak antolatzeko maiatzaren 6ko 10/2002 Foru Legea aldatzen duena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. arti- kuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2015eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean uhin elektro- mag- netiko ez- gidatu- en bidezko telekomu- nikazioko oinarritzko estazioak antolatzeko maiatzaren 6ko 10/2002 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Hamabi urte baino gehiago igaro dira Nafarroa- ko Foru Komunitatean uhin elektromagnetiko ez- gidatu- en bidezko telekomunikazioko oinarritzko estazioak antolatzeko maiatzaren 6ko 10/2002 Foru Legea onetsi zenetik. Legearen aplikazioan izandako eskarmentuak erakutsi du ezen, jardue- ren plangintza ordenatu bat beharrezkoa zen gara- penaldia gaindituta, legearen aplikazioak zama burokratiko handi samarra ekarri duela azken urte- otan aldaketei dagokienez, ukitutako azpiegitu- ren hedapena egiteko. Hori dela- eta, eta sinplifikazio administratiboaren mesedetan, zeina eginkizun publikoaren eraginkortasunerako oinarritzko prin- tzipioa baita, legearen izapidetzearen eta zama burokratikoaren arloak bakarrik aldatu beharra dago –alderdi horiek, egiazki, ez diote deus ere ekartzen legearen xede berme- emailari–, tekno- logia berrien hedapena azkartzeko eta errazteko, baina osasunaren babes- mailak aldatu gabe, bere horretan uzten baitira, erabat babestuta zuhurta- sun- printzipioa nahiz ingurumenaren eta osasuna- ren babesarena.

Bestalde, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legeak bere 56. artikuluan ezartzen du, bere funtsezko helburuen artean, Administrazio Publikoak ahalegi- nak egiten dituela arau- esparru egonkor eta aha- lik eta sinplifikatuena edukitzeko, herritarrek eta eragile ekonomikoek aise eskuratzeko modukoa, indarreko araudi aplikagarria azkar eta modu uler- garrian ezagutzeko balioko duena, eta herritarren-

tzako eta enpresentzako zama administratiborik gabekoa, salbu eta interes orokorra asetzeko behar-beharrezkoak diren zamak.

Halaber, foru lege horrek berak 57. artikuluan ezartzen du Administrazio Publikoak sustatuko duela indarreko araudia foru legean jasotako printzipioei egokitzea. Hortaz, foru lege honen xedea da Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legeak lortu nahi dituen sinplifikazio administratiboko eta araudi-egokitzapeneko helburuak.

Izan ere, finean, Administrazioaren arrazionalizazio eta sinplifikazioa, zama burokratikoak murriztea eta Administrazio Publikoaren eraginkortasuna eta efizientzia funtsezko erronkak dira, eta horrek guztiak exijitzen du Administrazioa modernizatzea, arau-esparru gero eta zabalagoan –bai Europan, bai estatuan– ezartzen ari den moduan. Hori dela-eta aipatu behar dira, aipatzeko baino ez bada ere, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak barne merkatuko zerbitzuei buruz emandako 2006/123/EE Zuzentaraua, 2006ko abenduaren 12koa, zeinaren transposizioa egin baitzen Zerbitzu jarduerak libreki jarri eta ematea arautzen duen azaroaren 23ko 17/2009 Legearen bidez, bai eta, Foru Komunitatearen esparruan, Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin Administrazioa errazteko neurriei buruzko abenduaren 9ko 15/2009 Foru Legea ere.

Horrenbestez, foru lege proposamen honek erantzuten die alferreko administrazio-zamak errazteko eta murrizteko beharrari eta, horrela, Administrazio Publiko efizienteago eta arrazoizkoago bat lortzen laguntzeari.

Hartara, azpiegiturei buruzko lurralde planen ordeztarantzak izanen da operadoreen telekomunikazio-instalazioei buruzko informazioa aurkeztea; izan ere, horrek nabarmen azkartzen du administrazio-prozedura, eta ez da aldatzen Administrazio Publikoak instalazio horien gainean daukan kontrol eta ikuskaritza maila. Azkenik, bi aldaketa egiten dira I. eta III. eranskinetan, akats zuzenketa edo azalpen tekniko hutsak direnak, ez baitira inolaz ere aldatzen erreferentziazko nahitaezko muga edo balioak.

Artikulu bakarra. Nafarroako Foru Komunitatean uhin elektromagnetiko ez-gidatuen bidezko telekomunikazioko oinarrizko estazioak antolatzekeo maiatzaren 6ko 10/2002 Foru Legea aldatzea.

Nafarroako Foru Komunitatean uhin elektromagnetiko ez-gidatuen bidezko telekomunikazioko oinarrizko estazioak antolatzekeo maiatzaren 6ko 10/2002 Foru Legea aldatzen da, eta honako testu hau izanen du:

Bat. 2. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“1. Foru lege hau Nafarroan instalatzen diren 0 Hertz eta 300 Gigahertz bitarteko frekuentziako uhin elektromagnetikoak sor ditzaketen uhin elektromagnetiko ez-gidatuen bidezko telekomunikazioko oinarrizko estazio guztiei aplikatu behar zaie, baldin eta operadore gisa erregistratuta egon behar duten operadoreek hirugarrenei komunikazio elektronikoko zerbitzuak ematekoak edo sareak ustiatzekoak badira.”

Bi. III. tituluaren idazpurua aldatzen da. Honako testu hau izanen du:

“III. titulu. Azpiegiturei buruzko informazioa.”

Hiru. 9. artikulua aldatzen da, eta idazkera hau izanen du:

“9. artikulua. Azpiegiturei buruzko informazioa aurkezteko betebeharra.

Operadoreek Nafarroako Gobernuaren telekomunikazioen arloko eskumena duen departamentuari informazioa aurkeztu beharko diote Nafarroan dauden edo ezarri nahi diren eta haren titulartasunekoak diren telekomunikazio-instalazioei buruz. Eman beharreko informazioa izanen da Estatuko Administrazio Orokorrari instalazio horiei buruz aurkeztu beharreko berbera, aldizkakotasun berarekin eta epe berean eman ere.

Operadoreek emandako informazioa, laburtuta eta gaurkotuta, Nafarroako Foru Komunitatearen Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuko da aldian behin, jendeak ezagut dezan.”

Lau. 10, 12. eta 13. artikulua kentzen dira.

Bost. 18. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“18. artikulua. Arau-hauste arinak.

Arau-hauste arinak izanen dira foru lege honetan eta aplikatzeko den araudian jasotako xedapenen ez-betetze soilak, non eta ez dauden arau-hauste larri edo oso larri gisa tipifikaturik; eta, zehazki, foru lege honetako 9. artikuluan aipatutako informazioa osorik ez aurkeztea edo foru lege honetako 7. artikuluan aipatutako ekipoen desmuntatzearen eta erretiratzearen berri ez ematea, baldin eta, bi kasu horietan, betebeharrak horiek betetzeko errekerimendua egin bada alde aurretik eta errekerimendu hori ez bada bete.”

Sei. 19. artikuluko 8. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

“8. Foru lege honetako 9. artikuluan aipatutako informazioa ez aurkeztea, baldin eta betebeharrak

hori betetzeko errekerimendua egin bada alde zuzenetik eta errekerimendu hori ez bada bete”

Zazpi. 20. artikulua 1. idatz-zatia kentzen da

Zortzi. Lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren xedapen gehigarriak kentzen dira.

Bederatzi. Xedapen gehigarri bat gehitzen da, egon den bakarra. Hona:

“Xedapen gehigarri bakarra.

Operadoreak ez du zertan aurkeztu foru lege honetako 9. artikuluan aipatutako informazioa, bal-

din eta Estatuko Administrazio Orokorrek, lege-manuekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari informazio hori eman badio”

Hamar. Azken xedapenetan lehena aldatzen da. Hona testua:

“Azken xedapenetan lehena. Nafarroako Gobernuari ematen zaio foru lege hau garatzeko ardura.

Hamaika. 1. eranskineko taularen ordeza, ondoko jartzea:

Frekuentzia-gama	Eremu elektrikoaren intentsitatea (E)(V/m)	Eremu magnetikoaren intentsitatea (H) (A/m)	Potentzia dentsitatea (W/m ²)
9-150 KHz	58	3,3	-
0,15-1 MHz	58	0,5/f	-
1-10 MHz	58f ^{1/2}	0,5/f	-
10-400 MHz	19	0,05	0,9
400-2000 MHz	0,9f ^{1/2}	0,0025f ^{1/2}	f/450
2-300 GHz	41	0,1	4,5

Hamabi. III. eranskineko laugarren paragrafoa aldatzen da. Hona testua:

“Paralelepipedo horren barruan ezin izanen da jendearentzako erabilera edo esposizio jarraituko iraganleku edo/eta egonlekurik egon. Babelen bolumen horretan iraganleku edo/eta egonlekuren bat suertatzen bada, nahitaez aldatu beharko da irrati sistemaren kokapena, edo nahitaez bermatu beharko da gehieneko esposizio-mailak iraganleku edo/eta egonleku horietan ez duela gainditzen 1. eranskinean ezarritako erreferentziak mailarik”

Xedapen iragankor bakarra. Egun izapidetzen ari diren espedientei foru lege hau aplikatuko zaie indarrean sartzen denetik aitzina; halatan, operadoreek aurkeztu dituzten lurralde-mailako azpiegitura-planek, edo horien aldaketek, maiatzaren 6ko 10/2002 Foru Legeko 9. artikulua testu berriak aipatutako informazioa aurkeztu beharra ordeztuko dute, eta informazio horri dagokion izapidetze bera jarraitu beharko dute, egin beharreko egokitzapenak eginda.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea hein batean aldatzekoa.

ZUZENKETA MANTENTZEA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 139.3. artikulua ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentutaldeen 1. zenbakiko “in voce” zuzenketa, zeina Osoko Bilkuran defendatzen ahalko baita.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

«1 zenbakiko “in voce” zuzenketa.

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Foru Administrazioak aintzat hartuko du ekonomia sozialeko D eredu ikastetxeek “eremu ez euskaldun” deiturikoan egiten duten lana.

Administrazioak ez baldin badu bermatzen oinarritzko hezkuntzako maila guztietan euskarazko irakaskuntza publikoa, eredu horien aldeko hautua egin duten ikasleek eskubidea izanen dute

garraio eta jantoki zerbitzua maila horietan jasotzeko, eskualdeko ikastetxeetako baldintza berberetan.

Ekonomia sozialeko D eredu ikastetxeek hezkuntza-administrazioaren esku jarri beharko dituzte kontrol-dokumentuak, bideragarritasun planak eta hark egoki iritzitako bestelakoak.

Ekonomia sozialeko D eredu ikastetxeak behartuta daude, halaber, beren jarduketa-ekualdeetan kultur jarduerak nahiz ematen dituzten irakaskuntzen jarduera osagarriak bultzatzen jarraitzea».

Zioak: beti defendatu dugu laguntzak eman beharra dagoela aukera honen aldeko hautua egiten duten familiak ez daitezen kalteturik atera, baldin eta Administrazio Publikoak ez badu ziurtatzen euskarazko irakaskuntza publikoa. Gauza jakina denez hezkuntza arloko legeak arian-arian aplikatzen direla, uste dugu beharrezkoa dela behin-behineko gisa honetako neurriak hartzea.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aiegin haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko bat eraiki dezan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA, BILDU-NAFARROA, ARALAR-NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK ETA ATXIKI GABEKO FORU PARLAMENTARI PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Aiegin haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko bat eraiki dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aiegiko herrian haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko bat eraiki dezan.

2015eko urtarrilaren 28an, Aiegiko herriaren ordezkariak batek, alkatea buru zela, agerraldia egin zuen Parlamentu honetako Hezkuntza Batzordean, azalpenak emate aldera herri horretan haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko bat eduki ahal izateko dagoen eskariari buruz.

Han azaldutakotik ondorioztatzen da Nafarroa osoan Aiegi dela, bere biztanle-mailako herrien artean, ikastetxe publikorik ez daukan herri bakarra, eta argi gelditu zen egungo nahiz etorkizuneko eskaria aski dela beren eskaria justifikatzeko.

Gainera, udalak badauka dotazio-erabilerarako lurzati bat, toki egoki batean kokatuta, modua emanen lukeena ikastetxea eraikitzeko, eta aurretiatzko azterlan bat egin du, ikastetxea eraikitzea eta Aiegin haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko bat egitea aholkatu eta justifikatzen duena. Hartara, Osoko Bilkuran onetsi zuen Nafarroako Gobernuari hori eskatzea.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duten parlamentu-taldeek ondoko erabaki proposamena aurkezten dute:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Aiegiko herrian al bait azkarren eraiki dezan haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko bat, horrela herriaren eskariari eta Udalak aurkeztutako eskabideari erantzuteko.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 29an

Foru parlamentariak: Pedro Rascón Macías, Bakartxo Ruiz Jaso, Nekane Pérez Irazabal, Mari-sa de Simón Caballero eta Patxi Leuza García

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu urgentziazkoa dela baliorik gabe uztea frankismoarekin lotutako pertsonak goستن dituzten errekonozimenduak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015ko otsailaren 2an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du urgentziazkoa dela baliorik gabe uztea frankismoarekin lotutako pertsonak goستن dituzten errekonozimendu publiko eta administratibo guztiak, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala

emateko Foru Legeko 12. artikuluan xedatutakoa betez.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du lege hori oso-osorik bete beharra dagoela, epeak betez eta legean jasotako proposamenetan aurrera egingenez.”

Iruñean, 2015eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko ea Nafarroak zergatik ez duen parte hartzen Europak enpresa txiki eta ertainentzat prestatu duen Europako kreditu-planean.*SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea Nafarroak zergatik ez duen parte hartzen Europak enpresa txiki eta ertainentzat prestatu duen Europako kreditu-planean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Ekonomiako-kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

. Zentzuzko arrazoirik ba al dago Nafarroak ez parte hartzeko Europak enpresa txiki eta ertainentzat prestatu duen Europako kreditu-planean?

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, Reina Sofía ospitaleko mamografiak Nafarroako Unibertsitateko Klinikara desbideratzeari buruzkoa.*SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, Reina Sofía ospitaleko mamografiak Nafarroako Unibertsitateko Klinikara buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

• Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordean adierazi zuen Reina Sofía ospitaleko mamografiak Unibertsitate Klinikara desbideratzearen arrazoia zela klinika dela mamografiak baldintzarik onenetan egiteko lekua, eta Erradiologiako Zerbitzuko buruak jarraian erantzun zuen mamografia horiek

inolako arazorik gabe egin zitezkeela Nafarroako Ospitalegunean bertan. Osasuneko kontseilariaren ustez, bi adierazpen horien artean ba al dago kontraesan handirik?

- Zure ustez, baliabide publikoen erabilerari begira eraginkortasun eta efizientiaren ikuspuntu-

tik, zegoen konponbiderik onena eman al zaie desbideratze horiei?

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, “Enpresa txiki eta ertainak ekimena” izeneko enpresa-finantzaketako proiektuan Nafarroako Foru Komunitateak parte ez hartzeari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, “Enpresa txiki eta ertainak ekimena” izeneko enpresa-finantzaketako proiektuan Nafarroako Foru Komunitateak parte ez hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du 2015eko otsailaren 2ko Mahaian eta Eledunen Batzarrean, Nafarroako Gobernuak lehendakariordeak 2015eko otsailaren 19ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak zer arrazoi eman die entitate sustatzaileei –Europar Batzordea, Ekonomia eta Administrazio Publikoen Ministerioa eta Europako Inbertsio Bankua–, erkidegoak “Enpresa txiki eta ertainak ekimena” izeneko enpresa-finantzaketako proiektuan parte ez hartzeari buruz?

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Iruñeko (Beloso) eta Zolinako behaketa- eta harrera-zentroen kudeaketari eta funtzionamenduari buruzkoa.

PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 2an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, Iruñeko (Beloso) eta Zolinako behaketa- eta harrera-zentroen kudeaketari eta funtzionamenduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Iruñeko (Beloso) eta Zolinako behaketa- eta harrera-zentroen kudeaketari eta funtzionamenduari dagokionez,

Zentroetan bide administratibotik eta bide judizialek egoiliar gisa sartzen diren adingabeak elkarrekin al daude, eta leku eta errutina berberak al dituzte?

Adingabeen Fiskaltzari ematen al zaio zentrora bide administratibotik heltzen diren adingabeen zerrenda?

Zer jarduketa-protokolo jarraitzen da zentrora bide administratibotik heltzen diren adingabeekin? Zein bide judizialek heltzen direnekin?

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 27an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Erabakia, foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzano andrearen heriotza dela eta.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzano andrearen heriotza dela eta, honakoa ERABAKI DA:

1. Adieraztea María Victoria Arraiza Zorzano andrearen heriotzaren berri izan duela, eta horrek dakarren foru parlamentariaren izaera-galtzearena (Erregelamenduaren 28.3 artikulua). Kargu hori

lortu zuen martxoaren 28ko 1/2011 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan (2011ko martxoaren 29ko 61. zenbakiko NAO), "Partido Socialista de Navarra-PSOE" hautagaitzaren barruan.

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru parlamentari Patricia Cueva Lázaro andrea Socialistas de Navarra parlamentu-taldean sartzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Patricia Cueva Lázaro foru parlamentari andreak aurtengo urtarrilaren 29an aurkezturiko idazkia, zeinaren bidez jakinarazten baitu Socialistas de Navarra parlamentu-taldean sartu dela, ERABAKI DA:

1. Idazki hori jasotzat ematea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2015eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

2014ko abenduaren 31n Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan lanean ari diren funtzionarioen zerrenda.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko otsailaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14.2 artikulua xedatzen du Mahaiak urtero presatutako duela Legebiltzarreko funtzionario guztien zerrenda bat, urtean urteko abenduaren 31ko egoeraren arabera, eta bertan agertuko direla funtzionarioen datu pertsonalak, maila, gradua, lanpostua eta administrazio egoera.

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak 2014ko abenduaren 31ko funtzionarioen zerrenda dela eta eginiko proposamena, ERABAKI DA:

1. 2014ko abenduaren 31n Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan lanean ari diren funtzionarioen ondoko zerrenda onestea:

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko otsailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

IZEN-ABIZENAK	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
Idazkaritza Nagusia				
ESPARZA OROZ, MIGUEL	A	7	Legelari nagusia	Jardunean
Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren idazkaritza				
LASECA ESCUER, JOSÉ RAMÓN	C	7	Administrari burua	Jardunean
MITXELENA ENBIL, IZASKUN AMAIA	C	6	Administraria	Jardunean
Zerbitzu Juridikoak				
Lanpostu hutsa	A		Legelaria	
BERMEJO GARDE, MOISÉS	A	7	Legelaria	Zerbitzu bereziak
DOMENECH ALEGRE, SILVIA	A	4	Legelaria	Jardunean
PULIDO QUECEDO, MANUEL	A	7	Legelaria	Jardunean
Zerbitzu Orokorrak				
Lanpostu hutsa	B		Administrari buru teknikaria	
Lanpostu hutsa (desagertzekotan)	B		Teknikari diplomatua	
ZOZAYA GARRALDA, SERGIO	B	3	Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	Jardunean
LOYOLA ERASO, PEDRO	A	6	Informatikako goi mailako teknikaria	Jardunean
ARANAZ JIMÉNEZ, EDUARDO	B	4	Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	Jardunean
MARZAL PARRA, M ^a ASUNCIÓN	B	5	Informatika sistemetako erdi mailako teknikaria	Jardunean
Lanpostu hutsa	C		Mantenimenduko ofizial teknikaria	
ALDATZ PAYAN, GORKA	C	5	Administraria*	Jardunean
ARDAIZ EGÜÉS, ÁNGEL	C	7	Administraria	Zerbitzu bereziak
BEAR SANZ, CARLOS	C	6	Administraria	Jardunean
ECHEVERRÍA UHALTE, CELINA	C	7	Administraria	Jardunean
LEZÁUN JUÁNIZ, MARAVILLAS	C	6	Administraria	Zerbitzu bereziak
ANSORENA URRIZA, ANTONIO	D	7	Gelazain nagusia	Jardunean
ADOT LOPERENA, M ^a ÁNGELES	D	6	Gelazaina	Jardunean
ARIZCUREN REY, M ^a ÁNGELES	D	7	Gelazaina	Jardunean
FADRIQUE GARDE, ISABEL	D	7	Gelazaina	Jardunean
ENECOIZ SEGURA, FLORENCIO	D	5	Gelazaina	Zerbitzu bereziak

IZEN-ABIZENAK	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
MARTÍNEZ ORDUÑA, M ^a JESÚS	D	6	Gelazaina	Jardunean
MONEO MARTÍNEZ, M ^a INÉS	D	6	Gelazaina	Jardunean
URMENETA MARÍN, OLGA	D	6	Gelazaina	Jardunean
VENTURA ARBILLA, ANA ISABEL	D	7	Gelazaina	Zerbitzu bereziak
Lanpostu hutsa	D		Gelazaina	
Lanpostu hutsa	D		Gelazaina	
Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzua				
GIL MARTÍNEZ, CARLOS JAVIER	A	7	Prentsako burua	Jardunean
Lanpostu hutsa	A		Komunikazio teknikaria	
ARANA BAREÑO, ANDER	A	4	Itzultzailea	Jardunean
ARISTEGUIETA OQUIÑENA, XABIER	A	4	Itzultzailea	Jardunean
IRAZUSTABARRENA BARRIOLA, AINHOA	A	3	Itzultzailea	Jardunean
IRIARTE CILVETI, MIKEL	A	5	Itzultzailea	Jardunean
IRIZAR APAOLAZA, ANDER	A	4	Itzultzailea	Jardunean
MENA GARCÍA, TOMÁS	B	4	Protokoloko teknikaria **	Jardunean
ARMENDÁRIZ SENBEROIZ, BELÉN	C	6	Administraria	Jardunean
Lanpostu hutsa	C		Administraria*	
ARANAZ MARTÍ, CARLOTA	C	6	Transkriptorea	Jardunean
HUARTE CAMPIÓN, ANA ISABEL	C	7	Transkriptorea	Jardunean
PALMA ROMERO, FRANCISCA	C	6	Transkriptorea	Jardunean
SÁENZ GARCÍA, M ^a CARMEN	C	6	Transkriptorea	Jardunean
SANTIAGO SEGOVIA, IÑAKI DE	C	6	Transkriptorea *	Jardunean
SEVINÉ RUIZ, MERCEDES	C	3	Transkriptorea	Jardunean
Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzua				
FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, LUIS JAVIER	A	7	Artxibo eta Liburutegiko burua	Jardunean
ITURRI VILLANUEVA, ARACELI	B	4	Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	Jardunean
ALEGRÍA GOÑI, M ^a CARMEN	B	4	Liburutegiko laguntzailea eta dokumentalista	Jardunean
BORDA OLAGÜE, CARMEN	C	7	Administraria	Jardunean
MIGUÉLIZ GARCÉS, IÑAKI	C	6	Administraria*	Jardunean
Kontu-hartzailatza eta Ekonomia Gaietarako Zerbitzua				
ZULET RECALDE, FERNANDO	B	7	Kontu-hartzailatzako burua	Jardunean
VIDÁN ASTIZ, LAURA	B	3	Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	Jardunean
Lanpostu hutsa	B		Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	
FERNÁNDEZ GELOS, M ^a VICENTA	C	7	Administraria	Jardunean
PÉREZ DE RADA ARÍSTEGUI, M ^a EUNATE	C	7	Administraria	Jardunean
Nafarroako Arartekoaren Bulegoa				
BALDUZ GIL, JORGE	B	2	Administrazio kudeaketako erdi mailako teknikaria	Jardunean
LAINZ GIL, MAR	C	7	Administraria	Jardunean
Lanpostu hutsa	C		Administraria	

(*) Euskarazko titulu nahitaezkoa duen lanpostua

(**) Ingeleseko titulu nahitaezkoa duen lanpostua

Nafarroako Kontuen Ganberako 2015. urterako plantilla organikoa eta erakunde horrek 2014ko abenduaren 31n dituen funtzionarioen zerrenda.

Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiek hurrenez hurren xedatzen dute urtero onetsi behar direla erakunde horren zerbitzuko langileen plantilla organikoa eta erakunde horrek aurreko urteko abenduaren 31n zituen funtzionarioen zerrenda.

Hartara, ikusita erakundearen idazkari nagusiak urtarrilaren 13an aurkeztutako proposamena, Ganberako administratzaileak, kontu-hartzaileak eta zerbitzu juridikoek eginiko aldeko txostena jaso ondotik eta Kontuen Ganberako Langileen Batzordea informatu eta hari entzun ondotik, lehendakari naizen aldetik, nire ahalmen eta esku-menak baliatuta, ondokoa

EBATZI DU:

Lehena. Nafarroako Kontuen Ganberako 2015. urterako plantilla organikoa onestea. Plantilla ebazpen honen 1. eranskin gisa atxikirik doa.

Bigarrena. Nafarroako Kontuen Ganberako funtzionarioen 2014ko abenduaren 31ko zerrenda onestea. Zerrenda hori ebazpen honen 2. eranskin gisa atxikirik doa.

Hirugarrena. Ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Mahaiari igortzea, ezagut dezan eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agin dezan, eta Kontuen Ganberaren web orrian argitaratzea.

Iruñean, 2015eko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

1. eranskina

Kontuen Ganberako plantilla organikoa 2015. urterako

Lanpostua	Kopurua	Maila	Araubide juridikoa	Euskarako titulazioa	Izendapen librekoak	Esklusibitateak	Lanpostua	Berariazko osagarria	Berariazko osagarria
Lehendakariaren idazkaria	1		G		X				
Idazkari Nagusia	1	A	F		X	55	80,80		35
Auditorea	4	A	F			55	80,80		10
Legelaria	2	A	F			55	63,80		
Kazetari-itzultzailea	1	A	F	X		55	59,80		
Informatikako goi mailako teknikaria	1	A	F			55	40,80		
Auditoretzako teknikari-Kontu-hartzailea	1	B	F			55	50,20		20
Auditoretzako teknikaria	16	B	F			55	50,20		
Auditoretzako teknikaria	2	B	F	X		55	50,20		
Administratzailea:	1	C	F		X	55	58,00	12	
Administraria	5	C	F				46,18	12	
Administraria	1	C	F	X			46,18	12	
Sistema informatikoetako ofiziala	1	C	F				46,18	12	
Mandataria	2	D	F				36,50	15	
GUZTIRA	39								

F: funtzionarioa

G: Kabineteko behin-behineko langilea, izendapen librekoa.

2. eranskina
2014ko abenduaren 31n Nafarroako Kontuen Ganberaren
Zerbitzuan zeuden funtzionarioen zerrenda

Izen-abizenak	Maila	Gradua	Lanpostua	Administrazio egoera
Ordoki Urdazi, Luis M ^a	A	7	Idazkari Nagusia	Jardunean
Cabeza del Salvador, José Ignacio	A	7	Auditoria	Jardunean
Muruzábal Lerga, Jesús Salvador	A	7	Auditoria	Jardunean
Olaechea Estanga, M ^a Asunción	A	6	Auditoria	Jardunean
Moreno Orduña, Karen	A	3	Auditoria	Jardunean
Ezquerro Royo, José Luis	A	7	Legelaria	Jardunean
Sánchez Lerma, Gemma Angélica	A	4	Legelaria	Jardunean
Arrieta Gutiérrez, Francisco Javier	A	7	Goi mailako tek. Sistema Informatikoetan	Jardunean
Erbili Zabalza, Fermín	A	5	Kazetari-itultzailea*	Jardunean
Biurrun Martiarena, José Miguel	B	7	Auditoretzako teknikari-Kontu-harbitzailea	Jardunean
Aurrecoechea Gutiérrez, Miguel Ángel	B	5	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Azcona Díez de Ulzurrun, M ^a Carmen	B	6	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Balduz Gil, Elvira	B	6	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Bobadilla Bacaicoa, M ^a Pilar	B	6	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Elayo Salazar, Francisco José	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Fernández Renedo, Blanca Esther	B	6	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Gil Ochoa, M ^a Antonia	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Herrera Isasi, M ^a Begoña	B	2	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Irigoyen Olaiz, M ^a Lourdes	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Marticoarena Chapa, Xavier Iñigo	B	4	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Martinkorena Matxain, Miren Edurne	B	3	Auditoretzako teknikaria*	Jardunean
Rodríguez Jiménez, Ainara	B	2	Auditoretzako teknikaria*	Jardunean
Sola Mateos, M ^a Pilar	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Zudaire Echávarri, Antonia Aurora	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Zudaire Echávarri, Rosa Isabel	B	7	Auditoretzako teknikaria	Jardunean
Lanpostu hutsa	B	-	Auditoretzako teknikaria	-
Lanpostu hutsa	B	-	Auditoretzako teknikaria	-
Fernández Goñi, Joxe Julen	C	7	Administratzailea:	Jardunean
Casado Redín, Cristina	C	6	Administraria	Zerbitzu bereziak
Elizalde Del Rincón, Teresa	C	5	Administraria	Jardunean
Elizalde Elizalde, M ^a Julia	C	7	Administraria*	Jardunean
Lander Laurenz, M ^a Isabel	C	6	Administraria	Jardunean
Pérez de Albéniz Andueza, M ^a Francisca	C	5	Administraria	Jardunean
Lanpostu hutsa	C	-	Administraria	-
Pueyo Resano, Francisco Javier	C	5	Ofizial tek. Sistema informatikoak	Jardunean
Almingol Muñoz, Jesús Emilio	D	6	Mandataria	Jardunean
Zudaire Echávarri, M ^a Trinidad	D	6	Mandataria	Zerbitzu bereziak

* Euskara tituluduna